

# **BIGARREN HEZKUNTZAKO GRADUATUA**

## **PROBA LIBREA**

### **EREMU SOZIALA**

**2020KO AZAROA**

**ABIZENAK ETA IZENA:** \_\_\_\_\_

**SINADURA:**


**Lehen zatia**  
**Galdera bakoitzak 0,25 puntu balio du.**  
**Puntuazioa, guztira: 4,5 puntu.**

1. Ordenatu kronologikoki zibilizazio hauek.

Egipto	
Erroma	
Mesopotamia	
Grezia	


2. Definitu termino hauek: menhirra, trikuharria eta cromlecha.

3. Zer motatako oinplanoa du katedral honek? (Irudian)




4. Definitu termino hau: "Hirugarren industria-iraultza"

5. Zeintzuk izan ziren Bizkaiko Jaurerriko lehenengo hiribilduak?



6. Zer itsas espedizio ageri dira mapa honetan?





7. Kalkulatu Alemaniako biztanleria-dentsitatea. 357.021 km<sup>2</sup>-ko azalera du, eta 82.369.548 biztanle ditu. Zer eragiketa matematiko egin behar da?

8. Adierazi emigrazioa eragiten duten hiru arrazoi.

9. Mapamundian, inguratu zirkulu batez ondorengo toki hauek:

- Irlanda
- Madagaskar
- Portugal
- Kuba
- India




10. Azaldu labur-labur zer xede duen Garapen Jasangarrirako 4. Helburuak.



Blank rectangular box for the answer.

11. Definitu laburki "globalizazioa" terminoa.

12. Zer gertakari historiko islatzen du irudi honek?



13. Historiako zein garaitakoak dira irudian agertzen diren hondar arkeologikoak?



14.- Markatu "X" batez baieztapena egia (E) ala gezurra (G) den.

	E	G
Euskal Herriko banderizoen borrokak XX. mendean gertatu ziren.		
Homo Antecesor izan zen euskal lurretako lehen biztanlea.		
Euskal burdinaren kalitateak haren esportazioa erraztu zuen.		
Euskal Herrian, industria-iraultza XII. mendean hasi zen.		

15. Identifikatu, ezkerretik eskuinera, Eusko Jaurlaritzako lehendakari hauek.



16. Adierazi zein autonomia-erkidegori dagozkion honako zenbaki hauek:

- 8.
- 3.
- 6.
- 10.





17. Lotu Euskal Herriko historiari buruzko bi zutabeetako datuak:

1	Bizkaiko Foru Zaharra	Industrializazioa Euskal Herrian
2	Euskadiko lehen elkarte sozialista	Gerra zibila Euskadin
3	Burdinarako lehen labe garaiak Boluetan	Sabino Arana
4	Burdinazko gerrikoa	Bergarako besarkada
5	Lazarrabalgo hitzaldia	Ohiturazko zuzenbidea
6	Karlistaldiak	Facundo Perezagua

18. Adierazi honako esaldi hauek egia (E) ala gezurra (G) diren:

Lehendakaria ez dagoenean, Arartekoak dihardu Eusko Jaurlaritzaren buru gisa.	
Lehendakariak aukeratzen ditu bere gobernuko sailburuak.	
Eusko Legebiltzarreko parlamentariak aukeratzen dute Lehendakaria.	
Euskal Autonomia Erkidegoko udaletako alkateak aukeratzen dute Lehendakaria.	



Eusko Legebiltzarreko kideak lau urtean behin hautatzen dira, hauteskunde orokorren bidez.	
--	--

<p><b>Bigarren zatia</b> <b>Irakurri testu hau, eta erantzun galderei.</b></p>
--

### 3 puntu guztira.



Milioika kameren eta puntukako txartel baten bidez jakin ahal izango da zein den herritar ona eta zein txarra. Kalkuluen arabera, Txinan 180 milioi kamera ari dira herritarrek zelatatzen.

Txinako gobernuak abiarazi ditu herritar onaren puntukako txartelaren lehen faseak. Joan den maiatzaren 1az geroztik, eta Garapen eta Erreforma Batzorde Nazionalaren webgunean ostiralean argitaratutako bi komunikaturen arabera, herritarrek urtebetez debekatuta izango dute trenak eta hegazkinak erabiltzea ekintza jakin batzuk egin badituzte edo egiten badituzte (terrorismoari buruzko informazio faltsua zabaldu, hegaldietan arazoak sortu, iraungitako garraio-txartelak erabili edo trenetan erre, besteak beste)

Xi Jinping presidentearen planaren lehen urratsa baino ez dira neurri horiek. Hain zuzen ere, gobernuaren asmoa da herritar onak eta txarrak bereiziko dituen eskala handiko puntuazio-sistema bat sortzea, alderdi hauek oinarri hartuta: gizarte- eta kontsumo-ohiturak, lagunak eta betebeharrak ekonomikoen betetze-maila. Sistema hori 2020rako guztiz ezarrita egotea nahi du Txinako gobernuak.



Data horretatik aurrera, puntuazioek eragina izango dute etxebizitza bat alokatzeko, aseguru edo mailegu bat lortzeko edo osasun publikoko arreta jasotzeko ahalmenean. Puntuazio baxuak dituzten herritarrek ez dute aukerarik izango lanpostu jakin batzuetan aritzeko, eta ezingo dituzte seme-alabak eskola pribatuetan matrikulatu. Gobernu txinatarraren planek aurreikusten dutenez, gizarte-fidagarritasuneko sistema horri esker, "konfiantzazko pertsonak toki guztietatik ibili ahal izango dira zero azpian, eta sinesgarritasuna galdu dutenek arazoak izango dituzte urrats bakar bat egiteko". Era berean, nota txarra atera dutenek interneteko abiadura motelagoa izango dute, murriztuta izango dute aisia-lekuetarako sarbidea eta ezingo dute askatasunez bidaiatu (neurri horiek aplikatzen dira jada).

Maiatzaren 1ean indarrean jarritako murrizketek eragina izango dute, halaber, finantza-arloko arau-haustek egin dituztenengan (adibidez, langileen gizarte-asegurua ordaintzen ez duten enpresaburuengan), isunak ordaintzen ez dituztenengan eta barkamen zintzorik eskatzen ez dutenengan.

Eta beste urrats bat emanez, 2016ko irailean, Estatu Kontseiluaren Bulego Nagusiak gizarte-fidagarritasunaren oinarrizko printzipioa finkatu zuen: "Konfiantza leku jakin batean hausten bada, murrizketak leku guztietan ezarriko dira".

Adibide bat jartzearen, Sesame Creditek –Alibabaren jabetzakoa– bost irizpideren arabera puntuazioa ematen die bere bezeroei; alegia, hau kontuan hartuta: ea fakturak garaiz ordaintzen dituzten, ea finantza-betebeharrak betetzen dituzten, ezaugarri pertsonalak, kontsumo-ohiturak eta pertsonen arteko harremanak. 600 puntu lortzen dituztenei, Sesame Creditek maileguak eman diezazkieke Alibaban erosketak egiteko; 650 puntu lortzen badituzte, auto bat aloka dezakete fidantzarik jarri gabe; 700 puntu izanez gero, Singapurrera bidaiari dezakete dokumentu jakin batzuk aurkeztu beharrik gabe, eta 750 puntu lortzen dituztenek azkarrago lor dezakete Europara bidaiatzeko bisa bat.

Albert Molins Renter. Bartzelona. 2018/05/03. (Egokitua)

## **GALDERAK:** (Erantzun libreak)

1. Idatzi titulua artikuluari.



2. Adierazi zein den testuaren ideia nagusia.
3. Azaldu zeure iritzia testuko esaldi honi buruz, arrazoiak emanaz:  
"Konfiantza leku jakin batean hausten bada, murrizketak leku guztietan ezarriko dira".
4. Irakurri arretaz artikulua, eta azaldu zeure iritzia bertan agertzen den informazioari buruz, arrazoiak emanaz.

**Hirugarren zatia: Lan-mundua  
Galdera bakoitzak 0,5 puntu balio du.  
Puntuazioa, guztira: 2,5 puntu.**

1. Azaldu laburki "lan-istripua" terminoaren esanahia.

2. Definitu labur-labur "langile autonomoa" terminoa.

3. Zer esan nahi du "kontratu" terminoak?

4. Zer esan nahi du "telelana" terminoak?

5. Definitu "curriculum" terminoa.